


Ideia berrien multid@ntza

SAREKO ARGIAK 10. urteurrena beteko du abenduan. 1997az geroztik hainbat aldaketa izan ditu eta horiek izango ditugu hizpide erreportaje honetan. Esku artean ditugun proiektuez eta aurrera begirako erronkez ere arituko gara. Gure etorkizuna ezin uler daiteke multimedia kontzeptua edo formatu guztien osagarritasuna aipatu gabe.



1997KO ABENDUAN ekin zion bere ibilbideari www.argia.com web guneak. ARGIAko kideek Internetek zer nolako garapena izango zuen ez zekiten, baina urrats hura eman behar zela argi zuten. Aldizkariko atal batzuk sarreratzeaz gain, euskarri elektronikoa zituen edukiak –elkarrizketa historikoak eta Euskal Kulturaren aurkibidea, adibidez– jarri zituen ARGIAk sarean. Urte eta erdi beranduago, 1999ko maiatzean, Euskal Kulturaren Hari@ izeneko buletina sortu zuen. Orduz geroztik hainbat aldaketa izan ditu, baina funtsean, garai hartako helburuei eusten die gaur egun. Kultura, euskara, irakaskuntza, teknologia berriak edota komunikabideak hizpide dituzten artikulua biltzen ditu egunero, eta 2.500 harpidedunek jasotzen dute e-posta bidez. Bi lagun arduratzen dira albisteak pilatu eta idazteaz. Kontsultatzen dituzten dozana bat egunkarietan, hainbat aldizkaritan eta webgune zein blogetan agertzen diren albiste, iritzi eta elkarrizketen artean interesgarrienak hautatu eta labur erre-daktatzen dituzte, Interneteko ‘albistegiekin’ –era honetako buletinek bederen– eskatzen duten

JON TORNER

moduan. Buletina egunero doan jaso nahi duenak www.argia.com/haria_boletina.php orrialdean sartu eta formularioa betetzea besterik ez du.

Aldizkari osoa on-line

Euskal Kulturaren Hari@ sortzeaz gain, 1999an beste pauso handi bat eman zuen ARGIAk: aldizkariko eduki guztiak Interneten (www.argia.com/argia-astekaria) eskuragarri jartzzen hasi zen. Urte hartatik aurrerako zenbaki guztiekin batera, 1963tik 1998ra bitarteko elkarrizketak aurki daitezke orain. Hari@ buletinarekin gertatu bezala, aldizkariaren bertsio elektronikoak ere hainbat aldaketa jasan ditu urte hauetan. Azken hilabeteotan emandako bi berrikuntza nabarmendu daitezke: batetik, aldizkaria PDF formatuan ikusteko aukera dago. Internetek eskaintzen dituen abantailak paperak duen xarmarekin –diseinuari dagokionez bereziki– uztartu nahi izan da horrela. Bestetik, 2006an audio grabazioak eta bideo muntaiak egiten hasi ginen. Bideokamera besapean hartuta Boliviara



joan ziren Txomin Txueka argazkilaria eta Amets Arzallus kazetaria. Handik ekarritako materiala www.argia.com/bolivia kanalean bildu zen. Ametsek idatzitako artikuluez gain, argazki galeria eta hamaika bideo osatu ziren, tartean Evo Moralesi egindako elkarrizketaren bideoa. ARGIAk ikus-entzunezko mundura salto egin eta kazetaritza lantzeko beste molde bat ezagutu zuen.

Multimedia kanala

Argi genuen ikus-entzunezkoen esparrura jauzi egin behar genuela, kazetaritza egiteko moduan Internetek aldaketak ekarri dituelako eta etorkizunean gehiago eragingo dituelako. SAREKO ARGIAK sortutako bideoak www.argia.com/bideoak orrialdean daude ikusgai. Hain justu, bertan azaltzen den zerrenda luzea berrantolatu eta modu garbi eta erabilgarriago batean eskainiko dizuegu azaroaren 30etik aurrera. Aurki ARGIAren Multimedia kanala sortuko dugu, eta bertan bideoak ordenatuta eskaintzea izango da lehen urratsa. Aurrerago audio grabazioak, argazki galeriak eta ikus-entzunezko beste euskarri batzuetan egindako lanak bilduko ditugu kanal horretan. Azken finean, testua ez den

SAREKO ARGIAren eboluzioaren adierazgarri, webguneak izan dituen azal desberdinak.

beste formatu guztietan egindako proiektuak bilduko ditugu gune horretan, eta apurka-apurka izaera propioa eskuratuko du.

Soundslide sistemaren abantailak

Multimedia kanalean Soundslide izeneko sistemaz egindako ikus-entzunezko muntaiak bilduko dira. Argazkiak eta audioa uztartzen dituzte proiektu horiek, modu oso orjinallean. Jada egin ditugu bakar batzuk. Kurdistan kanalean (www.argia.com/kurdistan/multimedia.php) dituzue ikusgai. Karlos Zurutuza kazetariak herrialde hartan ateratako argazkiez eta bertan grabatutako soinu eta ahotsez osatutako lau muntaiak aitzindari dira euskarazko kazetaritzan, orain arte inork ez baitzuen soundslide sistema erabili.

Ospakizuna Victoria Eugenia

Esan bezala, bideoen kanal eraberritua hilaren 30ean aurkeztuko du SAREKO ARGIAk. Zergatik egun horretan? Orduan egingo delako 10. urteurrena ospatzeko ekitaldia, Donostiako Victoria Eugenia antzokiko Klub aretoan, arratsaldeko 19:00etatik aurrera. Ongietorri hitzalditxoaren ostean, Patxi Baztarrika Eusko Jaurlaritzako Hizkun-

Aurki Multimedia kanala sortuko du SAREKO ARGIAk, eta bideoak bertan ordenatuta eskaintzea izango da lehen urratsa

TOLOSA
San Frantzisko kalean, Azaroaren 23tik abenduaren 2ra arte

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

Bizi irakurriz!

Ihesi Ibilbideak: nora joan eta zer bisitatu, klik bakarrarekin

Aisia eta ibilbideei lotutako tradizio handia du ARGIAK. Alde batetik, 2001. urtean *Euskal Herriko Gida* liburua argitaratu zuen, euskaraz eta gaztelaniaz, losu Etxanizen eskutik. Bertako edukiak Interneten bildu ziren kanal berezi batean. Bestalde, astekariak urteak daramatza bere orrialdeetan *Ihesi* atala argitaratzen. Euskal Herrian barrena egin ditzakegun hainbat ibilbideren berri ematen da bertan. Artikulu horiek idatzi dituzten eta idazten dituzten egileen artean pertsona ugari pasa da, eta ibilbide motak ere askotarikoak dira: mendi tontorrek igotzen dituztenak, bizikletan egitekoak, herri eta hiriak zeharkatzen dituztenak, eta abar.

Orain arte astekarian argitaratu diren ibilbide horiei buruzko xehetasunak Interneten topatzeko ARGIA aste-karira jo behar zen. Orain ordea, kanal berezi bat prestatu dugu, bilaketak modu errazean egin daitezten eta internautek ibilbide guztiak klik bakarra eginez izan ditzaten.

Ihesi Ibilbideak izango du izena kanal berezi horrek eta bilaketak Euskal Herriko maparen gainean edo formulario bidez egin ahal izango dira. Azken finean, erabiltzaileak gustuko duen ibilbidea topatzeko hainbat aukera izango



du: egilearen, lurraldearen, eskualdearen, motaren eta zailtasunaren arabera, besteak beste.

1999. urtetik aurrera ARGIA astekarian argitaratutako 400 ibilbide inguru eskualde, mota eta zailtasunaren arabera katalogatuak daude jada. Pixkanaka gero eta gehiago izango dira, astez aste kopurua haziz joango baita.

ELISABETH POMBO

tza Politikarako sailburuordeak hitz egingo du, eta haren ondoren Xabier Letona ARGIAKO zuzendariak. Hark azalduko ditu Multimedia atalaren nondik norakoak. Gainera, beste proiektu berezi bat ere aurkeztuko du: Ihesi kanala. ARGIA aldizkariako erreportajeak ditu ardatz web gune berriak, eta *Euskal Herriko Gida* liburuko edukiez osatutako web gunearen (www.argia.com/gida/index.htm) anaia gaztea da. Haren inguruko azalpenak goiko koadroan irakurri ditzakezue.

Letonak amaitutakoan, SAREKO ARGIAKO lagunek *Sareko Argia, 10 urte* bideoa eskainiko dute. Hamabost minututan, web gunearen historia, oraina eta etorkizuna laburbilduko du

Karlos Zurutuza kazetariak
Irakeko Kurdistanen lortutako
argazki eta soinu osatutako
soundslide-ak aitzindari dira
euskarazko kazetaritzan

ikus-entzunezkoak. Ekitaldiari Vicent Partal Vilaweb.cat web gune-ko zuzendariaren *Vilaweb, esperientzia eredu-garria Katalunian* izeneko hitzaldiak emango dio amaiera. 1995ean sortu zuen partalek erreferentzia bilakatu den katalanezko Vilaweb.cat web gunea. Erreferentzia aktualitateari —Herrialde Katalanetakoari zein nazioartekoari— egiten dion jarraipenagatik eta Internetek eskaintzen dituen baliabideen erabilpenagatik. SAREKO ARGIArentzat eredu den Vilaweb.tv web gunea dugu horren adierazgarri. Gainera, Partal TVEn, Kataluniako *La Vanguardia*, *El Punt* eta *Diari de Barcelona* egunkarrietan, *El Temps* aldizkarian eta Catalunya Radio irratian aritu da kazetari lanetan. ■

Dive Tarpoon Urpekaritza
PADI

Kirol portua, A7 lekua • 48992 Getxo • Tel / Fax: 94 4912577
e-posta: dive.tarpoon@euskalnet.net • web orria: www.dive.tarpoon.com

MATTEO JATETXEA

Ugaldetxo auzoa, 11
20180 Oiartzun
Tel. / Faxa: 943 49 11 94
e-posta: restaurantematteo@telefonica.net
web orria: www.restaurantematteo.com